







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Elektrizitatea

Kontsumitutako elektrizitateak %10,6 egin zuen behera 2012ko lehen hilabeteen, 2011. urteko hil beren izandakoaren aldean. Beherakada horren eragile nagusia industria izan zen, %14,6 jaitsi baitzen: zehazki, kare eta zementu azpiarloek %31,4 egin zuten behera, egurraren industriak %25,6, automobilen eraikuntzak %21,8 eta siderurgiak eta galdagintzak %21,7. Hori horrela, industrian ez da elektrizitatearen kontsumoa igo ezekin alorretan, eta maiatzetik, bereziki, irailetik datorren beheranzko joerari eutsi dio.

Zerbitzu arloak ere kontsumoari eutsi zion, eta bizitegi arloan, berriz, laugarren hilabetez jarraian, kontsumoak behera egin zuen (%11,3), urtarrilean hotz handia egin bazuen ere.

#### Gas naturala







Urtarrilean, gas natural konbentzionalaren kontsumoak %2 egin zuen gora, 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, eta zentral termikoen jardueraren areagotze apalarekin batera, %22 (%49 abenduan), guztizko kontsumoa %55 igo da, 2011ko aldi berean izandakoaren aldean, azken bi urtean izandako beheranzko joera aldatuz.

#### Erregaiak garraioan

2011n, erregaien kontsumoa %1,6 jaitsi zen urtean. Gasolinarenak %0,9 egin zuen behera eta gasolioenak %6,2. Erregaien kontsumoak beheranzko joera izan du 2008ko martxoaz geroztik, 2011ko lehen bi hilabeteen izan ezik.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera



### EAetik kanpoko egoera

**Petrolioaren kontsumoa munduan**  
Urtarrilean, munduan petrolioaren kontsumoak %1 egin zuen gora, 2011ko hil horretan izandakoaren aldean, eta 87,3 Mbpd iritsi zen. Hala, Europar Batasunean %1,4 egin zuen behera kontsumoak (13,4 Mbpd), AEBetan %4,7 (18,2 Mbpd) eta Txinan, ordea, %6,4 egin zuen gora (9,8 Mbpd).

Petrolioaren batez besteko kontsumoaren gorakada apaldu egin da azken sei hilabeteetan munduan, oro har, eta Txinan; Europan eta AEBetan, ordea, beherakada areagotu egin da.

**Energiaren kontsumoa Espainian**  
Espainian, urtarrilean elektrizitatearen kontsumoak %2,6 egin zuen behera, 2011ko hil horretan izandakoarekin erkatuta, eta azken 12 hilabetearen batez bestekoa %2,1 jaitsi da.







Urtarrilean, gas naturalaren kontsumoak %1,9 egin zuen behera; 2011ko hil berean izandakoaren aldean, eta urte mugikorren kontsumoa %7,1 jaitsi da.

Garraioan, erregaien kontsumoak %4,6 egin zuen behera 2011ko amaieran; gasolinaren kontsumoa %6,6 jaitsi zen, eta %4,1 gasolioen kasuan. Gasolioen kontsumoa %81 izan zen eta gasolinena %19.

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %6,1 egin zuen gora 2011n, azken hiru hilabetearen behera egin bazuen ere (abenduan %8,6 jaitsi zen).

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIaren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Urtarrilean, Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 111 \$ (86,1 €) izan zen. Urtean batez besteko prezioak %38 egin zuen gora, aurreko epealdian izandakoaren aldean (%31,2 eurotan).

#### Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %9,5 jaitsi zen abenduan, 2010eko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 22,5 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %29 egin zuen gora hil horretan, iazko hil berean izandakoaren aldean (30,1 €/MWh).

#### Ikatzen prezioa

Ikatzen prezioa abenduan 111,4 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %2,8 igo da.

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %24 egin zuen gora urtarrilean, urtebete lehenago hil horretan izandakoaren aldean, eta 51,06 €/MWh iritsi zen.

#### Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren prezioa 1,32 €/l izan zen eta gasolinarena 1,34 €/l urtarrilean. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %10,9 eta %7 igo ziren, hurrenez hurren, eta inoizko preziorik altuenak dira.

#### CO<sub>2</sub>-ren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7,7 €/t izan zen abenduan; 2010eko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %46,7 egin zuen behera, minimo historikoa dena.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAREN datuetan oinarrituta.